

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3709

EBAZPENA, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, EAEko arlo sozioekonomiko pribatuen Bikain - Euskararen Kalitate-ziurtagiriak lortzeko prozesuak garatzen dituen.

Erakunde publiko eta pribatuen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila ebaluatzeko, egiaztatzeko eta aitortzeko sistema arautzen duen ekainaren 27ko 97/2023 Dekretuaren 2. eta 3. artikuluetan adierazitakoa aintzat hartuz, Hizkuntza Politikarako sailburuordearen ebazpen baten bitartez EAEko arlo sozioekonomiko pribatuen Bikain – Euskararen Kalitate-ziurtagiriak lortzeko prozesu ezberdinak garatuko dira, honakoak kontuan hartuta:

AURREKARIAK

Ezaguna da arlo sozioekonomikoan euskal erakundeek betidanik erakutsi izan duten izaera berritzailea eta lehiakorra. Izaera berritzaile hori, gainera, ez da mugatu kudeaketa-moldeak, baliabide teknologikoak, tresneria edo azpiegitura berritzera. Erakunde edo enpresa batzuek eredu propio baten alde egin, eta beren lana, irudia edota produktua nahiz zerbitzua euskaraz lantzea jo dute, balio erantsia emango diela iritzita eta hizkuntza-eskubideei zor zaien begirunea kontuan izanik.

Gaur egun arlo sozioekonomikoan ohikoa da hainbat elementu garrantzitsuztat hartzea eta lantzea: ingurumena, kalitatea, gizarte-erantzukizuna, euskararen normalizazioa eta munduko hizkuntzen kudeaketa, garapen-jasangarriaren helburuak, genero-berdintasuna, lan-arriskuen prebentzioa eta abar. Horiek guztiak modu integratuan kudeatzea da kudeaketa aurreratuaren ezaugarrietako bat, eta hori da, hain zuzen, Bikain ereduaren helburu nagusia: lan-munduan euskaraz modu integratuan kudeatzea.

Bikain ereduak, jardun eredu horiek bezalaxe, kanpoko agente baten ikuspegia eta kontrastea jasotzen ditu aurrera egiten laguntzeko. Gainera, kanpoko ikuspegi hau jaso ondoren, hala bada-gokio, erakundeei egindako lana aitortzeko euskararen kudeaketa ziurtagiria ematen zaie ekitaldi publiko batean.

Bikain egitasmoa 2007an sortu eta 2008an inplementatu zen lehenengoz. Hamar urte geroago, 162/2017 Dekretuaren bidez erakunde publikoen ezaugarrietara egokitu zen Bikain ebaluazio-prozesua. Hausnarketa sakon baten ostean, arlo publikorako eta pribaturako prozesu bereiziak egiteko beharra antzeman zen, eta behar horri erantzunez argitaratu da ekainaren 27ko 97/2023 Dekretua.

Dekretu horrek, halaber, arlo sozioekonomiko pribatuen aitortza sistema osatu du. Izan ere, hainbat urtetako hausnarketaren ondoren eta eremu sozioekonomikoko eragile askorekin izandako parte hartzeko prozesu baten ondorioz, Eusko Jaurlaritzak abian jarri du «Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana 2020-23» izeneko, eta bertan, Bikaini lotutako helburu estrategikoa jasotzen du: «Ziurtagiriaren eskema egokitu, bezeroen aukerak zabaltzeko».

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Erakunde publiko eta pribatuen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila ebaluatzeko, egiaztatzeko eta aitortzeko sistema arautzen duen ekainaren 27ko 97/2023 Dekretuaren 2. eta 3. artikuluek xedatzen dutena kontuan hartuta,

2023ko uztailaren 31, astelehena

Bigarrena.– Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari emandako eskumenak ikusita,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bikain – Euskararen Kalitate-ziurtagiriak eskuratzeko ebaluazio-prozesuak sortzea eta garatzea, erakunde eskatzailearen hizkuntza egoera edo ezaugarrietara egokitzeko helburuz.

Bigarrena.– Ebazpen honen 1. eranskinean jasotzea Bikain ziurtagiri-prozesuaren helburuak, hartzaileak, gobernantza moduak eta ebaluazio-prozesuan parte hartzeko izapideei buruzko informazioa.

Hirugarrena.– Ebazpen honen 2. eranskinean jasotzea oinarrizko ziurtagiria eskuratzeko ebaluazio-prozesu sinplifikatua.

Laugarrena.– Ebazpen honen 3. eranskinean jasotzea Bikain-Euskararen kalitate ziurtagiria eskuratzeko ohiko ebaluazio-prozesua.

Bosgarrena.– Ebazpen honen 4. eranskinean jasotzea goi-mailako ziurtagiria berritzeko ebaluazio-prozesua.

Seigarrena.– Erakunde interesdunei jakinarazten zaie, administrazio-bidea agortzen ez duen ebazpen honen aurka egiteko, gora jotzeko errekurtsioa jar dakiokoela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 14a.

Hizkuntza Politikarako sailburuordea,
MIREN DOBARAN URRUTIA.

1. ERANSKINA

BIKAIN ZIURTAGIRIAK ESKURATZEKO EBALUAZIO-PROZESUAK

1.– Bikain ziurtagirien helburuak eremu pribatuan.

- Esparru sozioekonomiko pribatuan euskararen erabileraren, presentziaren eta kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatzea eta aitortzea.
- Sektore pribatuan euskararen erabilera areagotzea.
- Erakundeen ezaugarri eta egoeretara egokitutako ebaluazio-prozesuak eskaintzea.
- Erakunde pribatuei euskararen erabileran eta kudeaketan urratsak emateko laguntza ematea.
- Kanpoko adituen ebaluazioaren bitartez entitateei beren indarguneak sendotzeko, zer hobetuak begiz jotzeko, eta aurrera egiteko oinarrizko orientabideak ematea.
- Praktika onak partekatzea, erakunde eta ebaluatzaileen artean.
- Erakunde hauetako askotan erabiltzen diren kudeaketa-sistema aurreratuetan hizkuntza-kudeaketa txertatzea.
- Honelako prozesuak abian dituzten erakundeei egindako lanaren eta ahaleginaren aitortza egitea eta berme instituzionala eskaintzea.

2.– Ebazpenaren xedea.

Ebazpen honen bidez, Erakunde publiko eta pribatuen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila ebaluatzeko, egiaztatzeko eta aitortzeko sistema arautzen duen ekainaren 27ko 97/2023 Dekretua garatzen da; hain zuzen, esparru sozioekonomiko pribatuko erakundeen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila ebaluatu, egiaztatu eta aitortzeko Bikain ebaluazio-prozesuak arautzen dira, baita kanpo-ebaluazioaren zerbitzua jaso nahi duten erakundeek egin behar duten eskabidea eta bete beharreko baldintzak ere.

3.– Bikain aitortza-sistemaren hartzaileak.

1.– Erakunde publiko eta pribatuen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila ebaluatzeko, egiaztatzeko eta aitortzeko sistema arautzen duen ekainaren 27ko 97/2023 Dekretuaren 2.1.a) artikulua honako hau jasotzen du: «Beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan egiten duten esparru sozioekonomikoko erakunde pribatuek, osorik edo partzialki».

2.– Ekainaren 27ko 97/2023 Dekretuaren 2.2 artikulua ezarritakoa kontuan hartuta, egitura, osaera eta antolaketa bereziki konplexua denean, ebaluazioaren bideragarritasuna edo ebaluazio egiteko modurik egokiena aztertuko da kasu bakoitzean.

Erakunde baten egitura, osaera eta antolamendua bereziki konplexua dela ulertuko da erakundea egoitza batek baino gehiagok osatzen dutenean, lantoki bat baino gehiago duenean, edo hasiera batean aurreikusitako ebaluazio-prozesua aplikatzea zailtzen duten ezaugarri bereziak dituen.

2023ko uztailaren 31, astelehena

3.– Ebaluazioa eskatzen duten erakundeek gutxieneko autonomia izan behar dute ebaluatuko izan ahal izateko. Horretaz gain, erakunde baten atal, unitate edo negozio bat aurkezten bada, matrizean edo zentratean erakunde osoaren funtzionamenduan eragiten duten gaiak ebaluatuko dira: hizkuntza-politika, irudia eta komunikazioa, kontratazioa, prestakuntza eta abar. Halaber, erakunde handien negozio-unitateek kudeaketa-gaitasun nahikoa izan behar dute kudeaketa elementu guztietan ebaluazioa jaso ahal izateko.

4.– Kanpoan geratzen dira lantoki fisikorik ez duten erakundeak, bai eta gutxienez bi laguneko plantilla ez duten pertsona juridiko nahiz fisikoak.

5.– Halaber, Bikain - Euskararen Kalitate-ziurtagiriaren maila jakin bat duen erakunde batek ezingo du ebaluazioa berriro eskatu, harik eta eskatutako azken ebaluazioari dagokion ebazpena eman eta 12 hilabeteko epea pasatu arte.

4.– Bikain aitortza-sistemaren gobernantza.

4.1.– Euskararen Kudeaketaren Aitortza-sistemaren Jarraipen Batzordea.

1.– Ekainaren 27ko 97/2023 Dekretuaren 5. artikulua adierazten du Euskararen Kudeaketaren Aitortza-sistemaren Jarraipen Batzordeari dagokiola aitortza-sistemaren koordinazioa, eta, besteak beste, eginkizun hauek izango dituela: esparru publiko eta sektore sozioekonomiko pribatuari dagokien aitortza-sistemaren zabalkundea egitea; bi sektore edo esparru horien arteko beharrezko koordinazioa bermatzea, sistemaren koherentzia mantentze aldera; aitortza-sistemari jarraipena egitea, eta beharrezko hobekuntzak inplementatzea.

2.– Euskararen Kudeaketaren Aitortza-sistemaren Jarraipen Batzordean bilduko dira, hizkuntza-politikaren eskumena duen sailburuordearen gidaritzapean, sektore publiko eta pribatuan hizkuntza-politikaren eskumena duten zuzendariak eta zuzendaritza horietako bina langile publiko.

4.2.– Artezkaritza Kontseilua.

1.– Euskararen Kudeaketaren Aitortza-sistemaren Artezkaritza Kontseilua partaidetza sozialeko organo aholku-emailea da, hizkuntza-politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikia, baina haren egitura hierarkikotik at dagoena.

2.– Organo honetan parte hartuko duen erakunde bakoitzak proposatuko du bere ordezkaria, eta hizkuntza-politikaren eskumena duen organoak izendatuko ditu kide horiek.

3.– Hona hemen Artezkaritza Kontseilua osatzen duten kideak:

a) Lehendakaria: hizkuntza-politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburuordea.

b) Idazkaria: sektore sozioekonomiko pribatuan hizkuntza-politikaren eskumena duen zuzendaria.

c) Sektore publikoan hizkuntza-politikaren eskumena duen zuzendaria.

d) Arabako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatuta izendatutako kide bana.

e) Euskal Udalen Elkarteak (Eudel) proposatuta izendatutako kide bat.

f) Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) proposatuta izendatutako kide bat.

g) Euskal Enpresaren Konfederakuntzak (Confebask), Gipuzkoako Enpresen Elkarteak (Adegi), Bizkaiko Enpresarien Konfederazioak (CEBEK) eta Arabako Enpresak (SEA) proposatuta kide bana.

h) Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak (Konfekoop) proposatuta izendatutako kide bat.

4.– Halaber, Artezkaritza Kontseiluan esku hartu ahal izango dute Artezkaritza Kontseiluak hala erabakita egoki irizitako beste erakunde batzuetako ordezkariak ere, gehienez 20 kideko kopurura heldu arte.

5.– Artezkaritza Kontseilua osatzeko edo horretan parte hartzeko pertsonak izendatu eta aukeratzean, trebakuntza, gaitasuna eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadila sustatu behar da. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauak neurriak edo bestelakoak hartuko dira.

6.– Artezkaritza Kontseiluak hizkuntza-politikaren eskumena duen organoko zerbitzu teknikoak laguntza izango du.

7.– Artezkaritza Kontseiluaren funtzionamendua eta berau osatzen duten kideen ordezkapen-erregimena Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean ezarritakoari lotuta egongo dira.

8.– Honako hauek dira Artezkaritza Kontseiluaren eginkizunak:

a) Urteko ekintza-plana onartzea, euskararen kudeaketaren aitortza-sistema zabaldu eta inplementatzeko.

b) Aholkuak ematea, hizkuntza-kudeaketaren ebaluazio- eta egiaztapen-ereduaren garapenari eta horrek dakartzan prozedurei dagokienez.

c) Jarraipena egin eta hobekuntza-jarduerak proposatzea, ezarritako ebaluazio-, egiaztatze- eta aitortza-sistema garatzeko.

9.– Artezkaritza Kontseilua aldiro-aldiro bilduko da, hau da, bilkurak egitea, beharrezko irizten dionean; dena dela, urtean behin gutxienez bilduko da.

10.– Ebaluazio-, egiaztatze eta aitortza-sistema honetan adituak diren teknikarien laguntza jaso ahal izango du Artezkaritza Kontseiluak. Teknikari horiek Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren eskumena duen arlokoak izango dira. Era berean, gai honetan adituak diren pertsonen laguntza jaso ahal izango du Artezkaritza Kontseiluak, bere egitekoak hobeto betetzeko, betiere egoki iriziz gero eta horretarako berariaz hartutako erabakiaren bidez.

11.– Artezkaritza Kontseiluko kideek ez dute dietarik eta konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik izango organo horretan parte hartzearen ondorioz izandako gastuengatik.

4.3.– Bikain ziurtagiriaren kudeaketa.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak egingo du ebaluazio-prozesu honen kudeaketa, eta, horretarako, Idazkaritza Teknikoa osatuko du.

5.– Bikain Ebaluatzaileen Kluba.

1.– Bikain Ebaluatzaileen Klubari dagokio sektore sozioekonomiko pribatuari lotutako ebaluazioak egitea.

2023ko uztailaren 31, astelehena

2.– Honako hauek izan daitezke klub horretako kide:

a) Erakundeetako profesionalak, euskararen erabilera sustatzeko arduraren lanpostuak dituztenak.

b) Kudeaketa aurreratuaren ereduaren adituak direnak.

c) Hizkuntza-arloko zerbitzu-enpresetako profesionalak.

d) Hizkuntza-normalizaziorako teknikariak.

e) Kudeaketa-sistemetako profesionalak.

f) Kanpo-ebaluazioa jaso edo jasotzeko eskabidea egin duten erakundeetako langileak.

3.– Ezinbestekoa izango da Bikain Ebaluatzaileen Klubeko kide izateko berriaz antolatuko diren prestakuntza-saioretan parte hartzea. Ebaluatzaileen klubeko kide izateko gainerako betekizunak sailburuordearen ebazpenaren bidez garatuko dira. Halaber, beste entitate baten ebaluazioan parte hartuko dute, baldin eta kudeatzaileek halaxe eskatzen badiete. Profesional hauek, ahal dela, erakunde eskatzailean kudeaketa lanak dituztenak eta ofimatika erabiltzen ohituta daudenak izango dira.

4.– Ebaluatzaileen Klubeko kide izan daiteke interesa duen eta aipatutako baldintzak betetzen dituen pertsona oro, bere erakundea ebaluatua izan ala ez.

Ebaluatzaileek, berriek zein aritutakoek, izena eman behar dute prozesu bakoitzean parte hartzeko:

- Ebaluatzaile berriek esteka honetan eman behar dute izena: <https://apps.euskadi.eus/web01-apbikain/eu/ab33aBikainWar/sarbidea>

Ondoren, erabiltzaile-kodea eta pasahitza jasoko dituzte eta beste esteka honetatik sartu beharko dira prestakuntza-txandak eta ebaluazio-datak aukeratzeko: <https://apps.euskadi.eus/web01-apbikain/es/ab33aBikainWar/login>

- Aritutako ebaluatzaileek esteka honetan sartu beharko dute prestakuntza-txandak eta ebaluazio-datak aukeratzeko.

<https://apps.euskadi.eus/web01-apbikain/es/ab33aBikainWar/login>

5.– Bikain Ebaluatzaileen Klubeko kide izateko eskabideak kudeatzea eta klubeko kideen zerrenda sortzea sektore sozioekonomiko pribatuan hizkuntza-politikaren eskumena duen zuzendaritzak egingo du.

6.– Bikain Ebaluatzaileen Kluba osatzerakoan ahaleginak egingo dira trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua egon dadila bermatzeko.

7.– Bikain Ebaluatzaileen Klubeko kideek ebaluazioetan zehar egindako lanak erabat boluntarioak dira; ondorioz, ez dute dietarik edota ordainsaririk jasoko ebaluazioetan erabilitako orduen truke, ezta dietarik ere egindako bidaiengatik edota egun horietako otorduengatik.

6.– Sektore Pribatuan Bikain Aitortza-sistemaren baitako Bikain - Euskararen Kalitate-ziurtagirien edukia.

1.– Hizkuntza-kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko sistemak oinarrian duen osagaia Erreferentzia Marko Estandarra (EME) da. EME lanerako markoa da, ez-arauemailea. Grafikoki, laguntza-koadro bat da erakundean hizkuntzaren presentzia eta erabilera (zerbitzuari eta lan-hizkuntzari dagokienez) zertan gauzatu ohi den adierazten duena modu eskematiko eta ordenatuan, baita erabilera-presentzia horien azpian dauden barne-mekanismoak eta kudeaketa ere.

Erreferentzia Marko Estandarraren (EME) edukia hizkuntza-politikan eskumena duen sailburuak onartu zuen agindu bidez, eta Bikain web orrian www.euskadi.eus/bikain/ argitaratuta dago. EME aldatu edo egokitu beharko balitz, sailburuordearen ebazpen bidez egingo litzateke eta EME berriak webgunean dagoena ordeztuko luke.

Erreferentzia Marko Estandarrak bi ardatz ditu:

- 1) Zerbitzu-hizkuntza.
- 2) Lan-hizkuntza.

Zerbitzu-hizkuntza da erakundeak irudian eta komunikazioan erabiltzen duena, eta lanpostuari dagozkion zereginak betetzerakoan herritarrekin ahoz, idatziz nahiz euskarri informatikoetan erabiltzen duena.

Lan-hizkuntza da erakunde bateko langileak lan jarduketan erabiltzen duen hizkuntza; hau da, erakundeko zereginak eta jarduerak egiteko ahoz, idatziz nahiz euskarri informatikoan erabiltzen duena: pertsonen kudeaketan, sistemen kudeaketan, komunikazio horizontal eta bertikalean, lan-prestakuntzan eta abar.

2.– Bi ardatz horietan erakunde bateko hizkuntza baten erabileraren, presentziaren eta kudeaketaren berri ematen duten osagaiak modu ordenatuan eta integratuan jasotzen dira. Ardatz bakoitza elementu eta azpi elementuetan hedatzen da, orokorrenetik zehatzenera, erakundeei buruzko ikuspegi xeheagoa eman eta zer ebaluatu errazteko.

7.– Sektore pribatuan Bikain Aitortza-sistemaren baitako aitortza motak eta horien mailak.

1.– Eusko Jaurlaritzak hiru egiaztapen-maila zehaztu ditu, euskararen presentziari, erabilerari eta kudeaketari dagokienez erakundeak egiaztatutako mailaren arabera: oinarrizko mailako ziurtagiria, erdi-mailako ziurtagiria eta goi-mailako ziurtagiria.

2.– Egiaztapenaren hiru mailak ebaluazioan aitortutako euskararen erabilera eta presentziaren neurrikoak izango dira, baita entitateak hartutako hizkuntza-irizpideen errotze- eta garapen-mailaren arabekoak ere, baina prozesu motaren arabera, modu ezberdinean ebaluatuko dira.

3.– Bere ezaugarrien edota hizkuntza-egoeraren arabera, erakundeak ebaluazio-prozesu ezberdinen artean aukeratu dezake izena ematerako orduan:

a) Oinarrizko ziurtagiria eskuratzeko ebaluazio-prozesu sinplifikatua: erakundeak oinarrizko ziurtagiria eskuratu ahal izango du bakarrik (prozedurari buruzko zehaztapenak, 2. eranskinean).

b) Bikain - Euskararen Kalitate-ziurtagiria eskuratzeko ohiko ebaluazio prozesua: erakundeak ziurtapen-maila bat lortu ahal izango du (oinarrizkoa, erdi-mailakoa edo goi-mailakoa), ebaluazioan lortutako puntuazioaren arabera (prozedurari buruzko zehaztapenak, 3. eranskinean).

c) Goi-mailako ziurtagiria berritzeko ebaluazio prozesua: goi-mailako ziurtagiria hiru aldiz eskuratu duten edo aurreko 5 urteetan goi-mailako ziurtagiria eskuratu, eta berri nahi duten erakundeentzat berariaz sortutako prozedura sinplifikatua (prozedurari buruzko zehaztapenak, 4. eranskinean).

4.– Euskara hutsez funtzionatzen duen erakunde batek ohiko ebaluazio-prozesurako izena ematen duenean, aurkezpen-dokumentua aztertu ostean Idazkaritza Teknikoak erabakiko du goi-mailako ziurtagiria eskuratzeko prozesu laburraren bidez ebaluatua izan daitekeen ala ez. Horrela bada, Idazkaritza Teknikoak erakundeari jakinaraziko dio.

8.– Kanpo-ebaluazioa eskatu duten erakundeen betebeharrak.

1.– Beharrezko lege-nortasunez horniturik egon eta, aldi berean, dagokion erregistroan izena emanda izatea. Erakundearen lege-ordezkariek izendatuko du eskabidean zein diren ebaluatu behar diren guneak (negozio-unitateak edota lan-zentroak badira, adibidez).

Ziurtagirian agertzen den izenak bat etorri behar du ebaluatu denarekin. Ekainaren 27ko 97/2023 Dekretuaren 4. artikulua adierazten du Aitortza erakundearen zati batek edo batzuek lortu badute, baina ez erakundeak bere osotasunean, agiriaren erabileran modu argian adierazi beharko dela nori dagokion, agiria erakunde osoari dagokiola ulertzeko biderik eman gabe.

2.– Hurrengo hauek ezin izango dute ebaluazio-prozesuan parte hartu: dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko galarazten duen debekuren baten edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen baten menpe dauden eskatzaileak eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua dela bide debeku horrekin zigortuek, betiere zehapenean finkatutako epe-barrutian.

3.– Erakunde eskatzaileak zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean izan behar ditu. Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko du eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela, eta ez du eskatzaileen baimenik beharko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluaen arabera. Hala ere, eskatzaileak baimen hori berariaz ukatu dezake, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22.4 artikuluan ezarri bezala. Kasu horretan, edo eskatzailearen helbide fiskala Espainiako Estatutik kanpo egonez gero, interesdunak dagozkion egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

9.– Izen-ematea eta gainerako izapideak.

9.1.– Eskaeren izapidetzea.

1.– Entitate interesdunek bide elektronikoa erabili beharko dute prozedurako izapide guztiak egiteko, kontsultatzeko eta eskatzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan dioenari jarraituz. Halaber, eskatzaileei egin beharreko jakinarazpen, komunikazio eta eskabidearen ondoko bestelako izapideak bitarteko berberak erabiliz egingo dira.

2.– Pertsona fisikoek ere bitarteko elektronikoz egin beharko dituzte eskaerak. Horretarako, erakunde publiko eta pribatuen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila ebaluatzen, egiaztatzen eta aitortzen ekainaren 27ko 97/2023 Dekretuaren bosgarren

xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuko zaie.

3.– Eskabidea modu elektronikoa izapidetzeko zehaztapenak ondoko helbidean daude eskuragarri: www.euskadi.eus/zerbitzuak/1230302

9.2.– Erakundeek bete eta erantsi beharreko agiriak.

1.– Eskatzaileek dagokion eskabidea ondo bete beharko dute.

2.– Horretaz gain, erakundeari buruzko honako agiri hauek ere erantsi beharko dituzte:

Administrazio honetako erregistroetan dauden fundazioak, elkarteak edo kooperatibak badira, ofizios konprobatuko du Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak.

Administrazio honetako erregistroetan izena emanda ez badaude, honako agiri hauek: eratze-eskrituraren kopia, entitateko estatutuen kopia eta dagokion erregistro publikoan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren kopia.

Erregistratzaera beharturik ez dauden entitateek sortzeko behar izan dituzten dokumentuak erantsi beharko dituzte.

Aipatutako dokumentazioa Administrazioan aurkeztu izan bada eta eskabidea egitean indarrean badago, eskabide-orrian dokumentazioaren ordezkotzat adierazpena markatu ahal da, eta dokumentazioa noiz eta non aurkeztu zen adierazi.

3.– Beharrezkotzat jotzen denetan, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak entitate eskatzaileari behar beste informazio eta dokumentazio eskatu ahal izango dio.

9.3.– Aurkeztutako eskabidean egindako akatsen zuzenketa.

Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma-akatsak daudela, edota aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egiten duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

9.4.– Eskaerak egitea eta ebaztea, eta ebaluazioa egiteko epea.

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak eskaerak jaso eta aztertuko ditu, eta eskatzaileek ebaluazioa jaso ahal izateko ezinbesteko baldintzak betetzen dituztela eta aurkeztu beharreko dokumentazioa zuzen dagoela egiaztatuko du. Ondoren, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendariaren ebazpen bidez, eskatzaileetako bakoitzari kanpo-ebaluazioaren prozesuan parte hartzeko eskaera onartua izan den edo ez, eta onartua izanez gero, ebaluazioaren kronograma zein izango den jakinaraziko zaio. Eskabidea aurkeztu, eta handik hiru hilabeteko epean ebazpenik jasoko ez balitz, administrazio-isiltasunak eskaeraren ukapena adierazten duela ulertuko da. Nolanahi ere, ebaluazioa amaitzeko epea, gehienez ere sei hilabetekoa izango da onartua izanaren ebazpena jaso zenetik.

10.– Ebazpenaren aldaketa.

Ebaluatutako izango diren erakundeak onartzeko garaian kontuan izandako edozein baldintza aldatu egiten bada, eta aldaketa horrek baldintzaren bat ez betetzea ekarriko balu, erakunde horrek ebaluazioa jasotzeko eskubidea galduko du.

11.– Bikain aplikazioa.

BIKAIN ziurtagiriak eskuratzeko prozesuak Bikain aplikazioaren bidez kudeatzen dira. Aplikazio honek hiru erabiltzaile mota ditu: eskaera egiten duen entitatea, ebaluatzaileak eta Idazkaritza Teknikoa.

Entitate eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoa erabiliko du eskaera egiteko, baina behin eskaera onartu eta gero, Bikain aplikazioa erabili beharko du ebaluazio-prozesuari dagozkion lanak egiteko.

Ebaluatzaileek aplikazioaren bidez egingo dituzte prestakuntzako ariketak, baita ebaluazio-prozesuari dagozkion lanak ere.

Halaber, ebaluazioan parte hartzen duten bi aldeek aplikazioaren bidez bete beharko dituzte prozesuarekin lotutako inkestak, eta bertatik eskuratuko dituzte bakoitzari dagozkion ziurtagiriak.

Aplikazioan sartzeko estekak Eusko Jaurlaritzako webgune honetan daude: BIKAIN ebaluazio-prozesuan parte hartzeko - Hizkuntza Politika - Euskadi.eus

12.– Egiaztatutako Bikain ziurtagiri-mailak aitortzeko ebazpena eta erakundeen zerrenda argitaratzea.

Ebaluazio-prozesua amaitu eta gero, talde ebaluatzaileek ebaluazio-txostenak eta erakundeek lortutako emaitzak eskuratu dizkiote Idazkaritza Teknikoari. Ondoren, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendariak ebazpen-proposamena egingo dio hizkuntza-politikan eskumena duen sailburuordeari ebaluatutako erakundeek egiaztatutako ziurtagiri-mailak aitortzeko, eta horren ebazpena har dezan. Ebaluazio partzialen kasuan, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak hala jasoko du eratorzen diren agirietan. Horren ostean, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, ebazpen bidez, erakunde eskatzaile bakoitzari kanpo-ebaluazioan aitortutako ziurtagiri-maila jakinaraziko dio.

Azkenik, urtean behin, gutxienez, iragarki bat argitaratuko da EHAA-n Bikain - Euskararen Kalitate-ziurtagiria eskuratu duten erakundeen zerrenda eta egiaztatu duten mailaren berri emateko, horrek bere ondorioak sor ditzan. Halaber, informazio hori Bikain web orrian www.euskadi.eus/bikain/ emango da.

13.– Aitortza-agirien erabilera.

1.– Eusko Jaurlaritzak emandako Bikain - Euskararen Kalitate-ziurtagiriaren eta gainerako aitortpenen markak zein horiek adierazten dituzten irudiak eta ikurrak Eusko Jaurlaritzarenak izango dira, eta haren izenean egongo dira inskribatuta.

2.– Hauek dira Bikain ziurtagiri-maila bakoitzari dagozkion markak:

Kolore beltzaren bidez, oinarrizko mailako ziurtagiria lortu dela adieraziko da.



Zilar-kolorearen bidez, erdi-mailako ziurtagiria lortu dela adieraziko da.

2023ko uztailaren 31, astelehena



Urre-kolorearen bidez, goi-mailako ziurtagiria lortu dela adieraziko da.



3.– Erakundeek Euskararen Kudeaketaren Aitortza-sistemaren baitan aitorpenei dagokien iruditegia erabili ahal izango dute beren barneko zein kanpoko dokumentuetan. Halaber, eskubidea izango dute publizitatean, beren webguneetan, kontsumitzaileei eta bezero potentzialei zuzendutako komunikazio orotan txertatzeko, baita enpresa-komunikazioan ere

4.– Aitorpena erakundearen zati batek edo batzuek lortu badute, baina ez erakundeak bere osotasunean, agiriaren eta honen marken erabileran modu argian adierazi beharko da nori dagokion; agiria erakunde osoari dagokiola ulertzeko biderik eman gabe.

2. ERANSKINA

0INARRIZKO ZIURTAGIRIA ESKURATZEKO EBALUAZIO-PROZESU SINPLIFIKATUA

1.– Xedea.

Bere hizkuntza-egoera dela eta oinarrizko ziurtagiria prozesu labur eta arinago baten bitartez eskuratu nahi duten erakundeei zuzendutako ebaluazio-prozesua garatzea.

Prozesu sinplifikatuaren bitartez ebaluatuak diren erakundeek ezin izango dute beste ziurtagiri mailarik eskuratu prozesu berean.

2.– Eskaera.

Eskabidea modu elektronikoa izapidetzeko zehaztapenak ondoko helbidean daude eskuragarri: www.euskadi.eus/zerbitzuak/1230302

Eskaeraren ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta> gunearen bitartez egin beharko dira.

Izen-emateari eta gainerako izapideei buruzko zehaztapenak ebazpen honen 1. eranskinaren 9. puntuan jasota daude.

3.– Kanpo-ebaluazioa jasotzeko erakundeek hizkuntza-esparruan bete beharrekoa

1.– Ebaluatuak izateko onartzen diren erakundeek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Erakundeko plantillako pertsona bat solaskide izendatuko dute, Idazkaritza Teknikoarekiko harremana bidera dezan prozesu osoan. Ahal dela, pertsona horrek Bikaineko ebaluatzaile izateko prestakuntza-modulua jasoko du, eta Bikain Ebaluatzaileen Klubeko kide izango da. Prestakuntzan izena emateko, ebazpen honen 1. eranskineko 5. atalean dauden estekak erabili behar dira.

b) Erakunde eskatzailearen tamainaren arabera plantillako pertsona batek edo bik Bikain prestakuntza-saioretan parte hartu beharko du/dute eskaera egiten duen prozesuan bertan edo aurrekoan.

- Erakunde eskatzailea ≤ 300 langilekoa bada: gutxienez kide 1.
- Erakunde eskatzailea > 300 langilekoa bada: gutxienez 2 kide.

Ebaluazioak partzialak badira, guneka alegia, eta eskabideak bereziak izan badira, gune bakoitzetik gutxienez pertsona batek joan beharko du ikastarora, eta aurreko puntuotan finkatu diren proportzioak errespetatuko dira.

Pertsona horiek ebaluazioa jasotzen duen prozesuan bertan aritu beharko dira ebaluatzaile, eta ebazpen honetako 1. eranskineko 5. puntuan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

c) Onarpen-ebazpena jaso eta gero, erakundeon solaskideak Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak deituko duen bileran parte hartuko du, prozesuaren, dokumentazioaren eta beste hainbat jakingarriren berri jasotzeko.

d) Aurkezpen-dokumentua Idazkaritza Teknikoak eskuratuko dion ereduaren arabera osatuko da. Agiri horren bitartez, erakundearen hizkuntza-egoera objektiboaren berri jasoko da, ebaluazio-prozesuarekin hasi aurretik.

2023ko uztailaren 31, astelehena

e) Zerbitzu honek iraun bitartean, Idazkaritza Teknikoak eskatzen dien informazioa nahiz baliabideak jarri beharko ditu eskura, ebaluazio-prozesua egoki burutu dadin. Eskakizun horiek ez betetzeak kanpo-ebaluazioaren prozesua etetea ekar lezake.

2.– Idazkaritza Teknikoak zehaztuko du ebaluatzeko onartuak diren erakundeekin nahiz ebaluatzaileekin erabiliko diren komunikazio- eta koordinazio-euskarriak.

4.– Ebaluatu beharreko gaiak eta ebaluazioan egiaztatu beharrezko gutxieneko baldintzak.

1.– Erakundeak EMERen 6 elementuetan ondoren adierazitako gutxieneko baldintzak bete beharko ditu oinarrizko-egiaztatzea eskuratu ahal izateko:

a) Erakundearen irudian: ingurune digitalean, errotuluetan, publizitatean, jendaurreko ekitaldietan eta erakundearen irudia osatzen duten alderdietarako euskara erabiltzeko irizpideak izatea eta euskararen erabilera gutxienez %60koa izatea.

b) Herritarrekin harremanetan: harrera euskaraz eskaintzea %60an, gutxienez; idatzizko eta ahozko zerbitzuan hizkuntza-irizpideak zehaztuta izatea eta gutxienez %50ean zerbitzua euskaraz eskaintzea.

c) Barne-komunikazioan eta lan-tresnetan: lanari lotutako hizkuntza paisaian, langileen arteko ahozko eta idatzizko harremanetan, lan-tresna eta aplikazioetan irizpideak zehaztuta izatea.

d) Pertsonen kudeaketan: Pertsonen kudeaketari lotutako dokumentuetarako, komunikazioetarako, tresnetarako eta prestakuntzarako euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko irizpideak zehaztuta izatea.

e) Kanpo-harremanetan: irizpide batzuk izatea administrazioekin eta enpresa pribatuekin (bezero zein hornitzaileekin) euskara erabiltzeko, ahoz eta idatziz.

f) Kudeaketa-sisteman: erakundeak euskararekin lotutako helburuak izatea, horiek lortzeko irizpideak eta ekintzak zehaztuta izatea, ardurak banatzea eta baliabideak aurreikustea. Halaber, langileen hizkuntza-gaitasuna hobetzeko ekintzak izan behar ditu.

Lan hizkuntzari dagozkion c, d eta e ataletan euskarak gutxieneko presentzia izan behar du erakundearen lan jardueran, bai ahoz eta bai idatziz. Erabilera hori modu orokorrean ebaluatuko da, eta euskararen erabilera, batz bestea, %15 izan behar du lan hizkuntzan.

2.– Prozesuan zehar, erakundeak aipatutako gutxienekoak betetzen dituen egiaztatuko dute Idazkaritza Teknikoak eta talde ebaluatzaileak, eta hala bada, oinarrizko ziurtagiria eskuratuko du.

5.– Ebaluazio-prozesua eta faseak.

1.– Establezimendu, enpresa edo erakundearen ordezkariak eskaeran markatu beharko du oinarrizko ziurtagiria prozesu sinplifikatuaren bidez eskuratzeko ebaluazioari dagokion aukera, ebazpen honetan ezarritako prozedurari jarraikiz.

2.– Kanpo-ebaluazioaren prozesuan hiru izango dira parte hartuko duten aldeak: ebaluatuko den erakundea, talde ebaluatzailea eta Idazkaritza Teknikoa.

3.– Ebaluazio-prozesuaren fase nagusiak honako hauek izango dira:

a) Hizkuntza lerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak eskaerak aztertuko ditu eta ebazpen bidez jakinaraziko die erakundeei onartuak izan diren ala ez.

2023ko uztailaren 31, astelehena

b) Onartutako erakundeek oinarritzko ziurtagiria eskuratzeko prozesu sinplifikatuan erabiltzen den aurkezpen-dokumentua egin eta aplikaziora igoko dute.

c) Idazkaritza Teknikoak ebaluatzaileak izendatuko ditu eta talde ebaluatzaileak eratuko dira. Erakunde bakoitzari komunikatuko zaio zein talde ebaluatzaile egokitu zaion.

d) Talde ebaluatzaileak ebaluazio-data hitzartuko du entitatearekin.

e) Ebaluatzaileek aurrebaluazioa egingo dute Bikain aplikazioan.

f) Ebaluazio-bilera egingo da.

g) Ebaluazio-taldeak ebaluazio-txostena idatziko du, eta erakundeak aplikazioaren bidez jasoko du.

h) Ebaluazio-prozesuak ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen dituzten erakundeek ziurtagiria jasoko dute aplikazioaren bidez, eta iragarkia argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

i) Hala badagokio, ebaluazio osteko bilera egingo da.

j) Ziurtagiria eskuratu duten erakundeei aitortza publikoa egingo zaie Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak antolatutako ekitaldi publikoan.

4.– Kanpo-ebaluazioaren prozesuaren kudeatzaileek aipatutako fase nagusi horien gaineko informazio osagarria unean-unean helaraziko diete alde guztiei, prozesua egoki burutu dadin.

5.– Dagokion entitatean ebaluazioa egin ostean, ebaluatzaile-taldeak txosten bat igorriko dio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari edo hizkuntza-politikaren eremuan eskuduna den organoari, eta, berau izango da goi-mailako Bikain ziurtagiria berri izana egiaztatuko duena, ebazpen honetako xede den gaiari dagokionez.

6.– Aldeek konfidentzialtasun-printzipioa gorde beharko dute.

3. ERANSKINA

BIKAIN - EUSKARAREN KALITATE ZIURTAGIRIA ESKURATZEKO OHIKO EBALUAZIO PROZESUA

1.– Xedea.

Erakunde pribatuetan euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa ebaluatzekeo prozesu integrala garatzea.

Ohiko ebaluazio prozesu honen bidez, ebaluatutako erakundeek lortutako puntuazioaren araberrako ziurtagiri-maila lortu ahal izango dute.

2.– Eskabidea.

Eskabidea modu elektronikoa izapidetzeko zehaztapenak ondoko helbidean daude eskuragarri: www.euskadi.eus/zerbitzuak/1230302

Eskabidearen ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta> gunearen bitartez egin beharko dira.

Izen-emateari eta gainerako izapideei buruzko zehaztapenak ebazpen honen 1. eranskinaren 9. puntuan jasota daude.

3.– Kanpo-ebaluazioa jasotzeko erakundeek hizkuntza-esparruan bete beharrekoa

1.– Ebaluatuak izateko onartzen diren erakundeek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Erakundeko plantillako pertsona bat solaskide izendatuko dute, Idazkaritza Teknikoarekiko harremana bidera dezan prozesu osoan. Ahal dela, pertsona horrek Bikaineko ebaluatzaile izateko prestakuntza-modulua jasoko du, eta Bikain Ebaluatzaileen Klubeko kide izango da.

Prestakuntzan izena emateko, ebazpen honen 1. eranskineko 5. atalean dauden estekak erabili behar dira.

b) Erakunde eskatzailearen tamainaren arabera plantillako pertsona batek edo gehiagok Bikain prestakuntza-saioetan parte hartu beharko du/dute eskaera egiten duen prozesuan bertan edo aurrekoan.

- Erakunde eskatzailea ≤ 300 langilekoa bada: gutxienez kide 1.
- Erakunde eskatzailea 301-699 langile artekoa bada: gutxienez 2 kide.
- Erakunde eskatzailea 700-1.499 langile artekoa bada: gutxienez 3 kide.
- Erakunde eskatzailea ≥ 1.500 langilekoa bada: gutxienez 4 kide.

Ebaluazioak partzialak badira, guneka alegia, eta eskabideak bereziak izan badira, gune bakoitzetik gutxienez pertsona batek joan beharko du ikastarora, eta aurreko puntuotan finkatu diren proportzioak errespetatuko dira.

Pertsona horiek ebaluazioa jasotzen duen prozesuan bertan aritu beharko dira ebaluatzaile, eta ebazpen honetako 1. eranskineko 5. puntuan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

c) Onarpen-ebazpena jaso eta gero, erakundeon solaskideak Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak deituko duen bileran parte hartuko du, prozesuaren, dokumentazioaren eta beste hainbat jakingarriren berri jasotzeko.

d) Aurkezpen-dokumentua kudeatzaileek eskuratuko dioten ereduaren arabera osatuko du entitateak eta aurretik Bikain aplikazioan egingo du. Agiri horren bitartez, erakundearen hizkuntza-egoera objektiboaren berri jasoko da, ebaluazio-prozesuarekin hasi aurretik.

e) Kanpo-ebaluazioaren kudeatzaileek zerbitzu honek iraun bitartean eska diezaioketen informazioa nahiz baliabideak jarri beharko ditu eskura, ebaluazio-prozesua egoki burutu dadin. Eskakizun horiek ez betetzeak kanpo-ebaluazioaren prozesua etetea ekar lezake.

2.– Kanpo-ebaluazioaren kudeatzaileek zehaztu egingo dituzte ebaluatzeko onartuak diren erakundeekin nahiz ebaluatzaileekin erabiliko diren komunikazio- eta koordinazio-euskarriak.

4.– Ebaluatu beharreko gaiak eta ebaluazioan egiaztatu beharreko gutxieneko baldintzak.

1.- Maila bakoitza Erreferentzia Marko Estandarraren ardatz eta jardun-eremu nagusi bakoitzari egokitutako puntuazioaren batuketaren arabera lortuko da.

2.– Erreferentzia Marko Estandarraren bi ardatzetako bakoitzak berariazko pisu bat dauka, ebazpen honen 3. eranskineko 5. atalean ikus daitekeen bezala. Puntu guztien batuketa eginda, guztira mila puntuko kopurua ateratzen da.

3.– Ebaluatutako erakundeek puntu-kopuru jakin bat pilatuko dute ardatz bakoitzean, eta ardatz horietako jardun-eremu nagusi bakoitzean egiaztatu duten garapen-mailaren arabera jasoko dute maila bateko edo besteko egiaztapena.

4.– Dagokion ziurtagiria lortzeko, ebaluazio-prozesuan gutxieneko puntu-kopurua pilatu beharko da, eta, horretaz gain, erakundeek maila bakoitzerako zehaztuta dagoen gutxieneko hedadura gainditu beharko dute zerbitzu hizkuntzan, hau da, 1. eta 2. elementuetan.

Ziurtagiri-maila	Gutxienez eskatutako puntu kopurua	Euskarak 1. eta 2. elementuetan izan behar duen gutxieneko hedadura, ehunekotan.
Oinarrizko-maila	300 puntu	% 60
Erdi-maila	500 puntu	% 80
Goi-maila	800 puntu	% 90

5.– Ebaluatu beharreko gaien ponderazio/puntuazio-sistema.

1.– Ohiko ebaluazio-prozesuan erakunde batean euskarak duen erabilera, presentzia eta kudeaketa ebaluatzen dira Erreferentzia Marko Estandarrean jasotako bi ardatzetako elementuetan. Ardatz bakoitzak hiru maila ditu, orokorrenetik zehatzenera, ebaluatu beharreko elementuei buruzko ikuspegi xeheagoa emateko.

2.– Ohiko ebaluazio-prozesuetan, lehen mailako 6 elementu horiek nahitaez ebaluatu beharrekoak dira Bikain ebaluazioaren arabera, denak aplikagarriak baitzaizkio erakundeari.

a) Enpresa-talde edo erakunde zentral baten menpekoea edota erabateko autonomia funtzionala ez duen erakundea izaki, erakunderen batek EMEko lehen eta bigarren mailako elementuren batean eragiteko ahalmenik izango ez balu, talde ebaluatzaileak baloratuko du nola aplikatu eta ebaluatuko duen elementu hori.

2023ko uztailaren 31, astelehena

b) Elementuren bat gaur egun euskararen esparru geografikotik kanpoko balu erakundeak –bezeria osoa atzerrian, adibidez– talde ebaluatzaileak ebaluatu egingo du epe laburrera bezero euskaldunik sortuz gero, zein izango litzatekeen haiekin euskaraz egin ahal izateko gaitasuna.

3.- Bikaineko ohiko ebaluazio-prozesuetan puntuazio maximo bat (haztapena) ematen zaio ardatz bakoitzari, eta puntuazio hori birbanatu egiten da ardatz horien lehen mailako elementuen artean.

BIKAINen 1.000 puntu lortu daitezke gehienez ere. 1.000 puntu horiek bi ardatzetan eta lehen mailako sei elementuetan honela banatzen dira:

1. ARDATZA: Zerbitzu-hizkuntza	350
1. Erakundearen irudia	150
2. Bezeroarekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harremanak	200
2. ARDATZA: Lan-hizkuntza	650
3. Barne-komunikazioa eta lan-tresnak	300
4. Pertsonen kudeaketa	100
5. Kanpo-harremanak	100
6. Kudeaketa-sistema	150

4.– Erakundeak aurkeztutako aurrexostenaren eta ebidentzia guztien bitartez erakundearen hizkuntza-egoera modu fidagarrian estrapolatu ahal izango da, eta, horrenbestez, jakin zein den erakunde horretako euskararen erabileraren, presentziaren eta kudeaketaren normalizazio- edo garapen-maila.

5.– Aztergai bakoitza atributu-sorta baten arabera balioetsiko da, eta atributu horien aplikazioak lagunduko du kuantifikatzen zein den euskararen presentziaren eta erabileraren garapen-maila. Bi atributuak –hedadura eta sendotasuna–, bi ardatzei eta lehen mailako sei elementuei aplikatzen zaizkie.

a) Hedadura. Elementu horretan erakundeak euskara zenbateraino erabiltzen duen idatziz eta ahoz.

b) Sendotasuna. Aztertu eta baloratu egingo da erakundeak elementu bakoitzean duen planteamendua (hizkuntza irizpideak daude, errealitatean oinarritutakoak dira, logika dute), kudeaketa sistema orokorrean duen integrazioa, liderren bultzada, testuen sortze-hizkuntza, zuzentasuna eta egokitasuna, horiek bermatzeko moduak, ekintza nahiz elementu horiekin zerikusia duten pertsonen hizkuntza-gaitasuna eta erabilera nola uztartzen diren, emaitzen joera positiboa, neurketak, errebisio sistematikoak, hobekuntzen aplikazioak, etab.

6.– Ebaluazio-prozesua eta faseak

Atributuak	GARAPEN-MAILA		
	0 - %39	%40 - %69	%70 - %100
Hedadura	· Euskararen presentziaren eta erabileraren hedadura %40tik beherakoa da	· Euskararen presentziaren eta erabileraren hedadura %40 eta %69 artekoa da	· Euskararen presentziaren eta erabileraren hedadura %69etik gorakoa da
Sendotasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Planteamendua berria da; ez dago kudeaketan zehar-lerro bezala integraturik, eta, gainera, bultzada apala eman zaio: · Hizkuntza-irizpideak ez daude garaturik, ez dago hizkuntza-irizpiderik edo ez dira betetzen. · Elementu horrekin harreman zuzena duten pertsonen hizkuntza-gaitasuna apala da, edo nahiz eta hizkuntza-gaitasuna apala ez izan, ez dago erabilerarekin lotuko duen mekanismorik. · Euskaraz sortu den ahozko eta idatzizko produkzioa 1/4etik beherakoa da. Idatzizko produkzioa estandarizatu gabe daukate gehienetan. · Zuzentasuna eta egokitasuna ez daude bermatuta. · Planteamendua ez da berrikusten edo ebaluatzen. 	<ul style="list-style-type: none"> Planteamendua kudeaketa-sisteman integratzen hasi da (bereziki zerbitzu-hizkuntzan) eta horri bultzada ertaina eman zaio: · Langile eta koadro ertainek lideratzen dute, praktikan, hizkuntza-normalizazioa. · Hizkuntza-irizpideak orekatuak dira. · Elementu horrekin harreman zuzena duten pertsonen hizkuntza-gaitasuna eta erabileraren uztartze-maila ertaina da. · Euskaraz sortu den ahozko eta idatzizko produkzioa 1/4 eta 3/4 artekoa da. Idatzizko produkzioaren estandarizazioa nahiko handia da, produkzio guztiaren erdia inguru. Euskaraz lan egiteko baliabideak eta behar den laguntza ematen zaizkie langileei. · Zuzentasuna eta egokitasuna ia beti bermatuta daude. · Planteamenduaren errebisioa egiten da eta goranzko joera ikusten da. 	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntzaren planteamendua kudeaketa-sisteman integratuta dago, zerbitzu- eta lan-hizkuntzari eragiten die, eta gainontzeko helburuak bezala kudeatzen da: · Erakundearen ordezkariak lideratzen dute, eredu izanik eta hizkuntza-normalizazioan prestakuntza hartuta. Gainera, langileek planteamendua barneratuta dute. · Hizkuntza-irizpideak garatuta daude eta jarraipena eta berrikuspena egiten da. Euskaraz funtzionatzen da, erakundearen esku dagoenetan. Bestelakoetan, erakundeak proaktiboki jokatu du egoera aldatzeko. · Hizkuntza-gaitasuna eta erabilera uztartuta daude. · Euskaraz sortu den ahozko eta idatzizko produkzioa 3/4etik gorakoa da. Idatzizko produkzioaren estandarizazioa altua da. · Zuzentasuna eta egokitasuna sistematikoki bermatuta daude. · Errebisioak sistematikoki egiten dira, eta emaitzak kudeatu, gainerako zehar lerroetan bezala.

1.– Bikain - Euskararen Kalitate-ziurtagiria eskuratzeko ebaluazioa establezimendu, enpresa edo erakundearen ordezkariak eskatu beharko du, dekretu honetan ezarritako prozedurari jarraikiz.

2.– Kanpo-ebaluazioaren prozesuan hiru izango dira parte hartuko duten aldeak: ebaluatuko den erakundea, talde ebaluatzailea eta prozesuaren kudeatzaileak.

3.– Ebaluazio-prozesuaren fase nagusiak honako hauek izango dira:

a) Kanpo-ebaluazioa eskatu duten erakundeekin eta parte hartzeko interesa agertu dutenekin prozesuaren inguruabarrak azaltzeko informazio-bilera egingo da ebaluazioaldi bakoitzaren hasieran.

b) Hizkuntza lerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak eskaerak aztertuko ditu eta ebazpen bidez jakinaraziko die erakundeei onartuak izan diren ala ez.

c) Onartutako erakundeek aurretostena egingo dute Bikain aplikazioan, Idazkaritza Teknikoak emandako jarraibideen arabera.

d) Idazkaritza Teknikoak ebaluatzaileak izendatuko ditu, eta talde ebaluatzaileak eratuko dira. Erakunde bakoitzari komunikatuko zaio zein talde ebaluatzaile egokitu zaion eta bisita-egunak (bat, bi edo gehiago) hitzartuko dira.

e) Ebaluatzaileek aurrebaluazioa egingo dute Bikain aplikazioan.

f) Ebaluazio-bisita egingo da.

g) Talde ebaluatzaileak ebaluazio-txostena idatziko du eta erakundeak aplikazioaren bidez jasoko du.

h) Ebaluazio-prozesuak ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen dituzten erakundeek ziurtagiria jasoko dute aplikazioaren bidez, eta iragarkia argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

i) Hala badagokio, ebaluazio osteko bilera egingo da.

j) Ziurtagiria eskuratu duten erakundeei aitortza publikoa egingo zaie Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak antolatutako ekitaldi publikoan.

4.– Kanpo ebaluazioaren prozesuaren kudeatzaileek aipatutako fase nagusi horien gaineko informazio osagarria unean-unean helaraziko diete alde guztiei, prozesua egoki burutu dadin.

5.– Dagokion entitatearen ebaluazioa egin ostean, talde ebaluatzaileak txosten bat igorriko dio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari edo hizkuntza-politikaren eremuan eskuduna den organoari, eta, berau izango da ebaluatutako entitatearen garapen-maila aitortu eta egiaztatuko duena, ebazpen honetako xede den gaiari dagokionez.

6.– Zerbitzu hori tartean, aldeek konfidentzialtasun-printzipioa gorde beharko dute.

7.– Euskara hutsez funtzionatzen duten erakundeek goi-mailako ziurtagiria eskuratzeko prozesua

1.– Ohiko ebaluazio-prozesurako eskaera egin, baina euskara langai duten enpresek eta euskara hutsez funtzionatzen dutenek ebaluazio laburragoa eta arinagoa jasoko dute, betiere beraien ezaugarriak kontuan hartuta, Idazkaritza Teknikoak hala erabakitzen badu.

4. ERANSKINA

GOI-MAILAKO ZIURTAGIRIA BERRITZEKO EBALUAZIO-PROZESUA

1.– Xedea.

Goi-mailako ziurtagiria azken bost urteetan eskuratu duten erakundeei edo goi-mailako ziurtagiria hiru aldiz eskuratu duten erakundeei ebaluazio sinplifikatu baten bidez berritzeko aukera ematea, betiere goi-mailako ziurtagiria eskuratzeko gutxieneko baldintzak betetzen badituzte, hau da, eranskin honetako 4. puntuari zehaztutakoak.

2.– Eskaera.

1.– Eskabidea modu elektronikoa izapidetzeko zehaztapenak ondoko helbidean daude eskuragarri: www.euskadi.eus/zerbitzuak/1230302

Eskaeraren ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta> gunearen bitartez egin beharko dira.

Izen-emateari eta gainerako izapideei buruzko zehaztapenak ebazpen honen 1. eranskinaren 9. puntuari jasota daude.

3.– Hizkuntza-esparruko betebeharrak.

1.– Ebaluatuak izateko onartzen diren erakundeek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Erakundeko plantillako pertsona bat solaskide izendatuko dute, Idazkaritza Teknikoarekiko harremana bidera dezan prozesu osoan. Ahal dela, pertsona horrek Bikaineko ebaluatzaile izateko prestakuntza-modulua jasoko du, eta Bikain Ebaluatzaileen Klubeko kide izango da.

Prestakuntzan izena emateko, ebazpen honen 1. eranskinen 5. atalean dauden estekak erabili behar dira.

b) Erakunde eskatzailearen tamainaren arabera plantillako pertsona batek edo bik Bikain prestakuntza-saioretan parte hartu beharko du/dute eskaera egiten duen prozesuan bertan edo aurrekoan.

- Erakunde eskatzailea ≤ 300 langilekoa bada: gutxienez kide 1.
- Erakunde eskatzailea > 300 langilekoa bada: gutxienez 2 kide.

Ebaluazioak partzialak badira, guneka alegia, eta eskabideak bereziak izan badira, gune bakoitzetik gutxienez pertsona batek joan beharko du ikastarora, eta aurreko puntuotan finkatu diren proportzioak errespetatuko dira.

Pertsona horiek ebaluazioa jasotzen duen prozesuan bertan aritu beharko dira ebaluatzaile, eta ebazpen honen 1. eranskinen 5. puntuari zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte.

c) Onarpen-ebazpena jaso eta gero, erakundeon solaskideak Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak deituko dituen bileran parte hartuko du, prozesuaren, dokumentazioaren, eta beste hainbat jakingarriren berri jasotzeko.

d) Aurkezpen-dokumentua kudeatzaileek eskuratuak dioten ereduaren arabera osatuko da. Agiri horren bitartez, erakundearen hizkuntza-egoera objektiboaren berri jasoko da, ebaluazio-prozesuarekin hasi aurretik.

e) Kanpo-ebaluazioaren kudeatzaileek zerbitzu honek iraun bitartean eska diezaioketen informazioa nahiz baliabideak jarri beharko ditu eskura, ebaluazio-prozesua egoki burutu dadin. Eskakizun horiek ez betetzeak kanpo-ebaluazioaren prozesua etetea ekar lezake.

2.– Kanpo-ebaluazioaren kudeatzaileek zehaztu egingo dituzte ebaluatzeko onartuak diren erakundeekin nahiz ebaluatzaileekin erabiliko diren komunikazio- eta koordinazio-euskarriak.

4.– Ebaluatu beharreko gaiak eta ebaluazioan egiaztatu beharreko gutxieneko baldintzak.

1.– Erreferentzia Marko Estandarraren lehen bost elementuetan aurreko ebaluazio-prozesuan aitortutako hedadura eta gaur egungoa adieraziko ditu erakundeak aurkezpen-dokumentuan.

2.– Kudeaketari buruzko informazioa emateko, hots, erakundeak 6. elementuan duen egoera ebaluatzeko, aurkezpen-dokumentuan jasotako galderei erantzun beharko die.

3.– Prozesu honetan erakundeak goi-mailako ziurtagiria eskuratu zuenean zeukan egoera mantendu edo hobetu duen egiaztatuko da, eta goi-mailako ziurtagiria prozesu sinplifikatu baten bidez berritzeko balio du. Emaidza Gai/Ez gai izango da, hau da, ez da inolako puntuaziorik emango.

4.– Goi-mailako ziurtagiria berritzeko, erakundeek ohiko ebaluazio-prozesuetan bete beharreko baldintza bera gainditu beharko dute:

Ziurtagiri-maila	Euskarak 1. eta 2. elementuetan duen gutxieneko hedadura, ehunekotan.
Goi-maila	% 90

5.– Ebaluazio-prozesua eta faseak.

1.– Azken bost urteetan goi-mailako ziurtagiria eskuratu duen erakunde batek edo aurrez goi-mailako ziurtagiria hiru aldiz egiaztatuta duenak goi-mailako ziurtagiria berri nahi badu, urrezko ziurtagiria berritzeko ebaluazio-prozesu sinplifikatua eskatu behar du establezimendu, enpresa edo erakundearen ordezkariak, dekretu honetan ezarritako prozedurari jarraikiz.

Erakundeak ziurtagiria eguneratu nahi badu baina aipatutako baldintza horiek betetzen ez baditu, ohiko ebaluazio prozesua jasotzeko eskaera egin beharko du.

2.– Kanpo-ebaluazioaren prozesuan hiru izango dira parte hartuko duten aldeak: ebaluatuko den erakundea, talde ebaluatzailea eta prozesuaren kudeatzaileak.

3.– Ebaluazio-prozesuaren fase nagusiak honako hauek izango dira:

a) Hizkuntza lkerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak eskaerak aztertuko ditu eta ebazpen bidez jakinaraziko die erakundeei onartuak izan diren ala ez.

b) Onartutako erakundeek goi-mailako ziurtagiria berritzeko prozesu sinplifikatuan erabiltzen den aurkezpen-dokumentua egin eta aplikaziora igoko dute.

c) Idazkaritza Teknikoak ebaluatzaileak izendatuko ditu eta talde ebaluatzaileak eratuko dira. Erakunde bakoitzari komunikatuko zaio zein talde ebaluatzaile egokitu zaion.

d) Talde ebaluatzaileak ebaluazio-data hitzartuko du entitatearekin.

e) Ebaluatzaileek aurrebaluazioa egingo dute Bikain aplikazioan.

f) Ebaluazio-bilera egingo da.

g) Ebaluazio-taldeak ebaluazio-txostena idatziko du, eta erakundeak aplikazioaren bidez jasoko du.

h) Ebaluazio-prozesuak ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen dituzten erakundeek ziurtagiria jasoko dute aplikazioaren bidez, eta iragarkia argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

i) Hala badagokio, ebaluazio osteko bilera egingo da.

j) Ziurtagiria eskuratu duten erakundeei aitortza publikoa egingo zaie Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak antolatutako ekitaldi publikoan.

4.– Kanpo-ebaluazioaren prozesuaren kudeatzaileek aipatutako fase nagusi horien gaineko informazio osagarria unean-unean helaraziko diete alde guztiei, prozesua egoki burutu dadin.

5.– Dagokion entitatean ebaluazioa egin ostean, ebaluatzaile-taldeak txosten bat igorriko dio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari edo hizkuntza-politikaren eremuan eskuduna den organoari, eta, berau izango da goi-mailako Bikain ziurtagiria berri izana egiaztatuko duena, ebazpen honetako xede den gaiari dagokionez.

6.– Zerbitzu hori tartean, aldeek konfidentzialtasun-printzipioa gorde beharko dute.